

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Brasilgo andre laborariak ez dute eukaliptoia maite

Loturarik egon daiteke Brasilen lur eske borrokatzen diren nekazarien eta Finlandian paperolak itxi dizkietelako lanik gabe geratu diren obreroen artean? Globalizazioari esker, bai.

Denak jabe suediar eta finlandiarrak dituen Stora Enso multinazionalaren gurpilak zanpatu dituelako.

MARTXOAREN 8A EMAKUMEEN EGUN

berezia suertatu zen aurtan Brasilgo Porto Alegren. Egun batzuk lehenago, goizaldean, 2.000 andre baserritarrek hiritik 56 kilometrotara dagoen Barra do Ribeiron Aracruz Celulosa konpainiaren eukalipto baso eta mintegiak okupatu zituzten. Emakumeen eguna iritsita, eguerdian, Porto Alegreako Ipiranga etorbidean barrena manifestazioan hurbildu ziren Unibertsitate Katolikora. Han Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak (FAO ingelesezko sigletan) bilera garrantzizkoa zeukan antolatua: Nekazaritzaren Erreformatarako eta Landa Eremuen Garapenerako Nazioarteko Biltzarra.

Emakume baserritarrei Via Campe-sinako gizonetzko militanteak eta hiri-buruan kaleko enpleguetan ari diren beste emakume asko elkartu zitzaizkien. “Guantanamo” abesti kubatar famatua kantatuz iritsi ziren ateetara. Antolatzaileekin negoziatu ondoren, 50 emakumez osatutako ordezkariari ametitu zitzaion biltzarrean berba egitea. Manifestua irakurri zieten han bildutakoiei, bortizkeria eta zanpaketa ororen akabera exijituz, elikadura burujabetza lortzeko nekazaritzaren erreforma osatuak aldarrikatuz.

Mario Osava kazetariak kontatu zuen Brasil bertatik *International Press Serviceren* (IPS) buletinean, *Agricultura-Brasil: Mujeres contra la celulosa* artiku-

luan. Emakumeok Martxoaren 8ko ekitaldiak baliatu zituzten salatze-ko Nazioarteko Diru Funtsaren, Munduko Bankuaren eta Merkataritzako Mundu Erakundearen bultzadaz Brasilgo milaka hektarea “basamortu berde” ari dituztela bihurtzen, eukalipto, akazia eta pinuz estalita.

Brasilgo nekazarien artean andreak badituzte eskari propioak. Emakumezkoen izenean etaldean %12 besterik ez dago, hasteko. Horrek eta beste emakume askok lantzen dituzten soroen jabetasun agiritik ez edukitzeak kondenatzen ditu gehienak zahartzaroan inolako pentsiorik ez jasotzera. Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendua (MST portugesez) bere baitan emakumeen atal berezia dauka.

Bestalde, andreak zuhaitz mintegia okupatu zioten Aracruz konpainia munduko nagusietakoa da eukalipto zelulosa ekoizten: Brasilgo hiru estatutan 261.000 hektarea dauzka zuhaitz horretaz landaturik eta urtean ia hiru milioi tona zelulosa merkaturatzen du. Suedia eta Finlandiako ugazabak dituen Stora Enso multinazionalak eta Aracruz 2005ean Bahia estatuan Veracel zelulosa fabrika berria ireki zuten, urtean 900.000 tona sortzen duena.

IPS agentzia berean geroago Linus Atarah-ek informazio gehiagoz osatu du gaia *El eucalipto que vino del frío* kronikarekin. Horrela dakigu eukaliptoarenak berebiziko garrantzia daukala

Aurtengo Martxoaren 8an Brasilgo Porto Alegren manifestazioan ibili ziren emakumeetako batzuk bildu ditu argazki honek. Lurrik Gabeko Laborarien Mugimenduko (MST) emakumeek aurreko egunetan papergintzako multinazionalen aurkako ekintza sinbolikoa burutu zuten, Stora Enso dauzkan baso eta mintegiak okupatuz eta gero FAOren biltzar batera eraman zituzten beren aldarrikapenak. Hamar urtetan industriak 12.000 milioi dolar inbertitu dituelarik, gaur Brasil munduan zazpigarren dago zelulosa ekoizpenean eta hamaikagarren paperarenean. Horretarako milaka hektarea oihan tropikal eraitsi eta nekazarien beste soro asko desegin dituzte, denak ere eukalipto, pinu eta akaziaz landatzeko, Lula da Silvaren gobernuaren babesarekin.

Brasilgo lurretan mundu osoko kapitalek egiten dituzten inbertsioentzako, eta ordainetan garapen eredu neoliberalaren kontra ari direnentzako ere bai. Atarah-ek Helsinkitik idatzi du, esplikatuz nola globalizazioa dela medio etsai beraren kontrako borrokan egin dezaketen topo Amazoniako laborari txiroek eta Finlandian multinazional berak lanik gabe utzi dituen obreroek.

Munduko enpresetan lehena

Stora Enso Oyj munduko zelulosa eta paper ekoizlerik handiena da. Izena bezala izana bi korporazio handiren elkartzetik datozkio. Stora aspaliditik zen famatua erantzukizun mugatuko munduko enpresarik zaharrena izateagatik: Stora Kopparberg izenarekin 1347an fundatu zuen Suediako Magnus IV.a erregeak, basogintzan eta meatzaritzan jarduteko. Enso Gutzeit Oy XIX. mendean sortu zuten eta XX. mende bukaerarako basogintzan eta papergintzan munduko handienetakoa bihurtu zen.

Biak 2002an elkartuta, gaur Stora Ensok 45.000 inguru langile dauzka. Akziodun nagusia Finlandiako estatua du, jabegoaren %37rekin. Erraldoi honek Brasilgo kimua 1998an sortu zuen, baina abiada geldiezinean sendotu da hamarkada batean.

Linus Atarah-ek kontatu duenez, Stora Ensok 2.500 hektarea erosi ditu



Rio Grande do Sul estatuan, bertako oihana eraitsi eta eukaliptoak landatzeko. Beste 10.000 gehiago erosi nahi dizkio Brasilgo Estatuari. Operazio honek batetik eragiten die lurrotan aurretik dauden nekazari lurrik gabeei eta bestetik munduaren beste muturrean Finlandian itxi dituzten zelulosa fabriketatik kobratzen dutenei.

Multinazionalak Anjala, Norrsundet eta Kemijärvikoko olak itxi ditu errentagarritasun tasari eusteko. Ekonomiazko prentsak publikatu zuen iaz Stora Ensok irabaziak %8,8 handitu zituela, baina horrekin batera 1.700 lanpostu desagitera zihoala. Zerbitzu zentralerako administrazioan deuseztatu diren 300 enpleguez gaineratikoak, aipatu hiru paperoletan. Galeren kontuak egiterakoan, ez

dira ahaztu behar fabrika bakoitzaren hornitzaileak, inguruetan horietarako pinuak landatu eta zaintzen milioiak inbertitu dituzten terrenojabeak alegia. Usinak itxita, ez zerurako eta lurrerako utzi dituzte. Finlandian eztabaidarik izan da estatua jabe duen korporazio horren jokabideaz, baina Kemijärvikoko langileen ordezkari Juha Pikkarainen-ek IPSri deklaratu dionez “tamalez, orain zentro-eskuineko gobernuak daukagu eta ez du eskurik sartu nahi bere jabegoko enpresen kudeaketan”.

Brasilen pizturiko eztabaidak aurrekoaren ifrentzua dirudi. Brasildar askok galdetzen dute ea nola ari zaizkien agintariak sekulako lur eremuak saltzen atzerriko enpresei. 1971tik bada han lege bat muga ondoko 150

kilometroan kanpotarrei lurrak erostea debekatzen diena, baina 1995ean Kongresuak erabakitako beste arau anbiguo bati esker atzerriko kapitalak kontrolatutako enpresa brasildarrak debeku horretatik kanpo geratu dira orain arte. Eskuineko diputatuak saiatzen ari dira, gainera, legeak aipatzen dituen 150 kilometroak mugatik 50era murrizten.

Paper industriaren inbasio izugarriari ez zaio segurtasun nazionalaren ikuspegitik edo nazionalismotik bakarrik erasotzen. MSTko aktibistek salatzen dute basogintza berri horrek areagotu egiten duela lurren jabegoaren kontzentrazioa. George Soros, Bill Gates, Bill Clinton bera... luzea da Brasiler aitor handiak erostera etorri diren kapitalisten zerrenda. Multinazionalak lurrak erosi ahala, bertan maizter ari ziren nekazariak langabezia geratzen dira. Erraldioak iristearrekin, gainera, lurraren prezioa igo egin da: %18 iaz.

Lurrik gabeko nekazarien liderrek salatzen dute eukaliptoak, akazia eta pinua Brasilan eragiten ari diren kalte ekologikoa. Eukaliptoak espezialista da zoruak lehortzen, ur asko zurrupatzen du eta. Zuhaitz bakarrek “basamortu berdeok”, bestalde, gaitzetatik babesteko pozoi kimiko asko erabiltzea eskatzen dute. Eta eztabaidarik gogorrena, azkenean, nekazaritza ereduaren eta elikadura burujabetasunaren inguruan dago. Jendea elikatzeko soroak *versus* paper gehiago merkeago ekoizteko basamortu berdea. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624